

“IRAKASLEEK ETA ESKOLAK ASKO LAGUNDU DIGUTE”



IES Hernani | Erantzun zati bat | Batxilergoa

Hernani BHIko “Erantzun zati bat” taldeko ikasleek galdetegiari erantzun diote, normalean irakasleena zen lekua hartuz.

Kosmodiseak aurrera egin ahala parte-hartze handiagoa izan dute ikasleek, edo, alderantziz, hasieran gogo handiz hasi eta ondoren hoztu egin dira?

Gogo handiz hasi ginen proiektu honekin eta denbora aurrera joan ahala, gogoak handituz joan dira. Izan ere lana ondo egin eta beste taldeek gure lana goraiatzeko irrikitan geuden.

Lehiaketaren egiturak ikasturtearen jarduna oztopatzen du edo elkarren osagarri dira?

Hasiera batean oztopo bat bezala ikusten genuen baina aurrera joan ahala, dinamikari neurria hartu diogu eta ondo moldatu gara.

Sari baten bidez aitortuak izateko aukerak motibatzen al ditu ikasleak?

Bai, egia esan bai; baina puntu horretara iritxi ahal izateko hainbat proba pasa behar izan ditugu eta hori ere baloratzekoa da.

Eta irakasleak? Ikastetxea?

Irakasle eta ikastetxeak, MGZ-ko orduekin eta bertako baliabideekin asko lagundu digute. Laguntza behar bagenuen hauengana jo eta beti laguntzeko prest zeuden.

Zein izan da Kosmodisean bizitutako esperientziaren onena?

Onena azken proiektua eta Kurasaaleko emanaldia izan ziren. Izan ere, emanaldi honetan ekintza desberdinak nahastu, kulturari tartea utzi eta partaideen lanak ikusi ahal izan ditugu.

Zailtasun handienak noiz eta zergatik sortu dira?

Ez zaizkigu zailtasun handirik sortu; nahiz eta hasiera batean simulatzailearekin arazoak izan.

Edizio hau eta aurrekoak ikusi ondoren, ekimen honetan parte hartzearen esperientziak zein ondorio ekarri dizkie ikasleei?

Ekimen hauek talde lana eta ekintzaitasuna bultzatu eta sustatzen ditu. Elkarlanaren bidez taldekideen arteko konfiantza eta elkarrekiko errespetua indartzen direlarik.

Eta irakasleei?

Askok lagundu digute.

Zortzigarren Kosmodisean parte hartzeko prest zaudete?

Hurrengo urtean bigarren batxillerrean egongo gara eta proiektu hau, orduan izango ditugun etxeko lanak, eta selektibitatearekin pilotuko zaizkigunez hasiera batean alde batera uztea erabaki dugu oraingoz.

Ekimena hobetzeko ekarpenik egin nahi duzue?

Ez, nahiz eta taldeak puntuatzeko era ez zaigun egokiena iruditzen.